

# astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

9.zk 2015 • 5e



PLATERO Y TU  
CORREOS



# 50 URTE 7 PRESIDENTE



Astola



Txelu Angoitia

**50 urteko historian,** zazpi pertsona izan dira Gerediaga Elkarteko presidente, eta bakoitzari garai ezberdin batean egokitu zaio taldeko buru izatea. Asko izan dira elkartearen ibilbidean momentu esanguratsuak, eta erabaki garrantzitsuak hartzea egokitu zaie. Lan taldea oinarri bada ere elkarte baten, hurrengo zazpi lagun hauek izan dute erantzukizun nagusia.



## MARIA CONCEPCION ASTOLA (1965-1966)

Elkartearen lehenengo presidentea izan zen. Durango Merinaldeko Adizkideen Gerediaga Elkartearen izenarekin 1965eko ekainaren 7an Bizkaian erregistratu zen lehen elkartearen izenarekin. Lan asko zegoen egiteko eta lan asko egin zuten; bazkideak egin, herrietako delegazioak antolatu eta lehenengo ekintzak antolatu. Entzute handiko ekimenak nabarmendu ziren. Arte modernoari buruzko lehen erakusketa antolatu zuten, besteak beste. Astola auzitegi etxeko azken teniente korrejidorea bere aitita izan zen.



### **BALENDIN LASUEN (1967-1972)**

Elkartea haziz joan zen. Eskualdeko herrietan ohikoa izaten zen Gerediagaren presentzia arlo ezberdinetako ekintzak antolatzen eta sustatzen. Elkartearen ekimenez batzuetan, eta herrietako eragileen eskariz besteetan, herrietako jaiak, euskarazko gau eskolak, antzerki ikuskizunak izan ziren bultzatutako ekimenetako batzuk. Legez onartutako elkarte baten izaera izateak askori laguntzeko eta babesa emateko erabili zen. Herriz herri eskualde osora zabaldu zen gerediagarren sarea. Mankomunitatea eta eskualde mailako zerbitzuen aldeko aldarria ere zabaltzen hasi ziren.



### **JOSE INAZIO ALBERDI (1972-1978)**

Frankismoaren azken urteak izan ziren baina oparoenetako batzuk ere bai elkartearen jardunean. Ohiko bihurtu ziren ekitaldiez gain, lan lerro berriak zabaldu ziren. Durangaldeko hirigintza arauak aztertzen lan handia egin zen, herrietan sortzen ari ziren "orden gabeko" auzo berriei begira. Sasoiko legeak eta administrazioarekiko formalismoek ere nahikoa buruhauste sortu zituen. Elkartearen historian presidente bakarra izan da epaitua; Ermuan debekatua izan zen eta egin zuten batzar bategatik kontuak eman behar izan zituen Ordena Publikoaren Auzitegian.



### **SABIN GOIKOLEA (1978-1983)**

Gerediagaren babesean egiten ziren ekimen askok ibilbide propioa hasi zuten. Euskara, euskal kultura eta eskualdea ardatza hartuta, elkarte modura bizi izandako ziurtasun gabeko sasoiei aurre egitea erabaki zen. Transizio urteak izan ziren eta elkarrekin biziko zituen aldakuntzen lehen urratsak eman zituzten. Lehenengoz langile bat kontratatzea erabaki zuten elkarrekin profesionalizazio bidean egiten ziren ekimen eta ekintza guztiak koordinatzeko helburuarekin.



### **ANTTON MARI ALDEKOA-OTALORA (1983-2003)**

Eskualdeko ezaugarriak nabarmendu eta ezagutzera emateko zabalkundean lan handia egin zen eta Durangaldeko pertsonaje, ohitura, ondarea eta historiari buruzko argitalpenek garrantzia izan zuten. Helburu berdinarekin, urteko egitaraua finkatu zuen elkarteak. Guztia, elkarteak bizi izan zuen krisi sakonena tarteko. Bazkide gutxi batzuk osatzen zuten lan batzordea. Hil ala biziko erabakiaren aurrean, berriro beharra zegoela ebatzi zuten.



### **ADRIAN ZELAIA (2003)**

“Emon arnasa” berriztatze prozesuari ekin zion presidentea. Sei hilabete bakarrik egin zituen karguan. Baina epe labur horretan Gerendiaga Elkarteak gizartean indarra hartzen zebiltzan antolaketa eta teknologia berriek ahalbidetzen zuten lan egiteko moduetara moldatu beharra erakutsi zuen.





### **NEREA MUJIKA (2003 – Gaur egun)**

Gizartearen aldaketei egokitzeko etengabeko ahaleaginean dabil elkarteak. Lan antolaketa indartu eta elkarteak dinamika profesionalean murgildu da; sorreratik izan dituen helburuak galdu gabe, forma eta molde berriak aurkituz. Era horretan, profesionalen taldea indartu egin da eta lehenengoz plan estrategikoak diseinatu dira. Horren adibide argiena Durangoko Azoka da. Ohiko azoka formak gaindituz, kultur esparru zabalagoak hartzen dituen ekimena da eta Durangoko uri osora zabaltzea du helburu.